

IRATXE TALDEA
Cl.Monasterio de Irache ,60
31011 IRUÑA

Jaun andere Agurgarriak

Zuengana zuzentzen gara, Iratxe taldearen barrenean den Maldaerreka S.Lek, Iturlandeta karrikan, gure etxean azpian, behilatoki bat idekitzeko baimena eskatu duzuelakoz eta kaltetuak garelakoz.

2014eko Apirilaren 25ean aditu genuen, gure etxearen azpian beilatokia ideki behar zela, Lesakako behilatokira hurbildu ginen eta han zegoen langile batek horrela zihurtatu zigun, nahiz eta ez zela oraindikan lokala eresia erranez. Egun batzuk geroago jakin genuen hori ez zela egia eta dena egina zegoela.

Gure aldetik, proiektorekin gure desadostasuna azaldu zizueten ez dugulakoz kokapen egokia ikusten, nahiz eta ematen den serbitzua haitz beharrezkoa dela aitortzen dugun.

Behin zurrumurrua egia bihurtu zenean eta Iturlandetako bizilagunak bildu ondoren, Udalari idatzia bidaltzea erabaki genuen eta 2014eko Apirilaren 27an lizentzia ez emateko eta udal ordenantzak aldatzea, inongo bizitzen azpian ez dezaten behilatorik jarri, eskatzen zuen idatzia bidali genion Berako Udalari. Idatzi honekin batera bizilagunen sinadurak ere bidali genizkion.

Maiatzaren 13an deitu zigun Alkateak bilera batera. Bilera honetan Udala osatzen duten hiru taldeko ordezkariak zeuden: Aralar, EAJ eta Bildu. Aralar eta EAJ ez ziren proiektorearen kontra jarri eta dagoen legedia bete besterik ez dutela eginen, aditzera eman zuten eta Bilduren ordezkariak bere

laguntza eskaini eta gure egoeraren jabe egiten zirela adierazi zuen.

Honen ondotik eta gobernu batzordearen jarrerarekin nahigabetuak eta Bilduren jarrerarekin indartuak gure mobilizazioekin segitzea erabaki genuen. Gure adiskideak agurtzeko, Berako herriak beilatokia, toki egokian behar du, herriaren erdian eraikin propio batean, eroso, sarrera erraxa duena eta aparkatzeko toki nahikoarekin. Berako herrian badaude inguru lasai eta atseginak diren eremuak.

Hurrengo pausoa Berako bizilagun guztieri gertatzen zenaren berri ematea izan zen eta komertziotan eta gero atez ateko, sinadura bilketari ekin genion, oso harrera ona lortuz.

Baita Nafarroako parlamentuan dauden alderdi guztiei gure asmoen berri eman genion eta Udal ordenantzaren eta tanatorioen buruz dauden legedia aldatzeko eskaera bidali diogu. Bertze komunitateetan gertatzen den bezala eraikin isolatuetan jarriko direla zihurtzuz eta bizilagunak dituen eraikinetan ez direla inoiz jarriko ahaleginak egitea, eskatuz.

Baita, bidali dizkiogu idatziak, Osasun departamenduari, Erdigune eta Garapen zerbitzuari eta azkenean Herritarren defendatzaileari, baldintza egokiak ezartzeko prozesua eman dezaten mota honetako instalazioak eraikitzeoan.

Ez gaude zuen enpresaren kontra, zuek ematen duzuen zerbitzu hagitz eskertzeko eta beharrezkoa da.

Zerbitzu honek toki egokia behar du, eta baldintza hori ez da ematen kasu honetan. Alde batetik sendiak intimitatea beharrezkoa du eta bertze aldetik bizilagunak ez dute zergatik bizitu behar bere egunerokoan eta zeheginetan inolako atsekaberik.

Gure jarrera bizi lagunen alde, Iratxeren alde, Udalaren alde eta gizarte

aurreratuen alde jokatzea da. Uste dugu, beste herrietan gertatu den bezala: Tuteran, Lesaka edo Leitzan gertatu denak hemen islada izan dezakela eta irtenbide egokia, denontzat, ematen ahal dela, eta Berakoa ez dela kasu bakarra edo isolatua izanen. Bertze tokietan lortu da eta hemen ere lortzen ahal da.

Herrian eman den mugimenduan eta eztabaidan beste alternatibak badaudela jakin dugu, adibidez, beilatokiko zerbitzua munizipala antolatzea edo eraikina herrikoa, eta zerbitzuz pribatua izatea. Berako Bilduk bere herri programan eztabaidatu eta hurrengo hauteskundeetan hori proposatzeko asmoa duela dakigu.

Badakigu Legediak lizentzia ematea babesten duela eta inor ez badu beste pausurik ematen, tanatorioa hemen eginen duzuela. Hala ere guk ekimenak antolatzen segituko dugu eta ez dugu etsiko, irtenbide egokiak badirela ikusten dugulako.

Ezin egona gero ta handiago dela eta bizilagunen artean eta zenduen familien artean egoera tamalgarriak eman daitekela aurreikusten dugu, eta horrela adierazi nahi dizuegu.

Zuen erantzunaren zai

Iturlandetako bizilagunak.

Atxiketzen dugun dokumentazioa:

Udalari bidalitako 1º gutuna

Bizi lagunei bidalitako gutuna

Udalari bigarren aldiz bidalitako gutuna.

Alderdi politikoei bidalitakoa

Osasun Sailari

Inguru Giro eta Garapen sailari bidalitakoa

Herritarren defenditzaileri

Herritarren sinadurak